



Jaizkibelgo Txoria



*Jaizkibelgo txoria,
gure herri gainetik
egunero pasatzen den
txoria,
ia kasurik egiten ez diogun
txoria.*



*Gauza asko dakizkik,
gauza asko jasandituk.
Egunero ikusten dituk militarrek
kabiak egiteko gelditzen zaizkiken
zuhaitz urriak deusezten.
Urtero gorrotatzen dituk supiztaileak.*



*Baina, hik,
protestatzen dakien txoria,
gure txoria izanik,
kanturik goxoenarekin
protestatzen duk;
Bizitzaren kentuekin.*



*Jaizkibelgo txoria,
gure herri gainetik
egunero pasatzen den
txoria,
kasu egin behar diogun
txoria.*

(J. AGIRRETXE)

